

Izen-abizenak: _____ Zk.: _____ Gela: _____ Data: _____

EUSKARA



6. maila

1. ENTZUMENA. Entzun *Haitz artean* testua arretaz eta erantzun hurrengo galderak.

- a) Nola zebilen Ander putzu barruan? _____
- b) Nola utzi zuen olatuak Ander? _____
- c) Zer gertatu zitzaion Martini haitzetan? _____
- d) Zer hots egiten du argazki-kamerak argazkia egiterakoan? _____
- e) Klima-aldaketa kaltegarria al da? Zergatik? _____

2. LEXIKOA. Azaldu zure hitzez zer diren maileguak eta jar itzazu bi adibide.

3. Idatz itzazu marrazki hauen izenak mailegutako hitzak erabiliz.



4. GRAMATIKA. Azpimarratu testuan agertzen diren izenondo graduatzaile guztiak, eta ondoren, esan zein motatakoak diren.

Gure aitonak hainbat fruta-arbola ditu baratzean. Batzuk sagarrondoak dira, eta sagar gorri-gorriak ematen dituzte. Sagarrek azal oso leuna eta distiratsu samarra izan ohi dute. Madariondoak ere baditu, baina horien fruituak ez dira sagarrak bezain politak, forma arraroa eta puntu beltzak baitituzte. Hala ere, madariak sagarrak baino gozoagoak dira. Orokorrean, iazko uza aurtengoa baino emankorragoa izan zen.

ASKEAK	ITSATSITAKOAK	ERREPIKAPENEZKOAK

5. Deskriba itzazu bi marrazki hauek 6 konparaketa sortuz. Berdintasunezkoak zein desberdintasunezkoak izan behar dira.



6. ADITZAK. Osa itzazu hurrengo esaldi hauek NOR-NORI aditz forma egokia erabiliz. Gogoratu orainaldian zein lehenaldian egon daitezkeela.

1. Atzo zuei amak egindako pastela asko gustatu _____.
2. Hari beti loteria tokatzen _____.
3. Niri erosketako poltsa etxean ahaztu _____ atzo.
4. Haiei pasa den ostiralean giltzak erori _____.
5. Zuri atzo azenarioak bukatu _____.
6. Guri gaur izozkiak erori _____.
7. Zuri oraintxe bertan alkandora apurtu _____.
8. Zuei mutil horiek inguratu _____.
9. Hari atzo gauean txanponak bukatu _____.
10. Guri bihar suhiltzaileak etorriko _____.

7. ORTOGRAFIA. Idatzi hitzen antonimoak, tz, ts eta tx-dun hitzak erabilia.

- | | |
|------------------|---------------|
| • Beroa → | • gozoa → |
| • erantzi → | • diruduna → |
| • zuria → | • ona → |
| • zoriontasuna → | • polita → |
| • pobrea → | • maltzurra → |
| • ulertteraza → | • ahula → |

Entzumena →
Lexikoa →
Gramatika →
Aditzak →
Ortografia →